

MUko ikasleak 2010eko Valentziako Hábitat Azokan erakutsi dituzte euren proiektuak.

2010/10/04

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko ikasleek Valentzian irailaren 28tik urriaren 2ra arte ospatu den nazioarteko Hábitat azokako NUDE aretoan parte hartu dute bigarren aldiz. NUDE aretoa (nazioarteko diseinu berriaren aretoa ere esaten zaio) diseinatzaile berriei eta diseinu ikasketa eta eskola berriei zuzendutako gune gazte eta sortzailea da, eta bertan ingurune horretako azken proposamenak erakusten dira.

Bederatzigarren edizio honetan Industri Diseinuko ingeniartzako hirugarren mailako ikasleak izan dira Mondragon Unibertsitateko ordezkari. Joan zen ikasturtean egindako etorkizuneko ikuspegia duten proiektuak erakutsi zituzten. Mankomunitateak eta ISEA ikerketa zentroak finantzatu dute ikasleen parte hartzea nazioarteko ekitaldi honetan. Ikasleek egindako hiru proposamenak harrera oso ona izan dute azokan.

Mondragon Unibertsitatearekin batera, beste diseinu eskoletako ikasleen proposamenak ikusi ahal izan dira, beste batzuen arten, Londreseko Royal College of Art edo Goldsmith diseinu eskolakoak. Ekitaldi honetan parte hartuz Industri Diseinuko ingeniartzita teknikoari amaiera bikain bat eman zaio.

<http://www.mondragon.edu/HabitatFeria>

<http://munude2010.wordpress.com/>

